

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN
TOKI ADMINISTRAZIOAADMINISTRACIÓN LOCAL DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA

Udalak

AMURRIO

1941

Behin betiko onarpena ematea gazteen dibertimenduzko aisialdirako lonjak erabiltzeari buruzko tokiko ordenantzari.

Udalaren osoko bilkurak, 2014ko apirilaren 8ko bileran, behin betiko onartu zuen gazteen dibertimenduzko aisialdirako lonjak erabiltzeari buruzko tokiko ordenantza, jarraian osorik eta hitzez hitz idatzi dena:

ZIOEN ADIERAZPENA

Azken urteotan, gazteen lonjen fenomenoak hazkunde nabarmena izan du bai Amurrión bai beste herri askotan. Gazteek beren aisia antolatzeke modu berriak garatu dituzte, eta gaur egun udalerrian lonja asko daude, aldi berean, gazte asko biltzen dituztenak.

Gune horietan gazteek harremanak dituzte beste lagun batzuekin, eta, beraz, topagune eta sozializazio gune dira, bertan interesak, gustuak eta kezkek elkarri adierazten dizkiotela, helduen kontrolik gabe beti.

Horrela, ez da bitxia egungo testuinguruan gazteek dibertimenduzko erabilerrako lokal pribatua izatea, bertan beren aisia ematen dutela.

Hala ere, batzuetan egoera horrek lokalaren inguruko auzo-koekiko bizikidetzak oztopatu du, erabilera horrek gainerako auzokoei eragiten dizkien eragozpen, zarata eta gainerako kalteen ondorioz. Horiei gune horiek inolako kontrolik gabe erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak gehitu behar zaizkie.

Alde horretatik, ordenantza honen helburua gune horien erabilerran esku hartzen duten sektoreetako bakoitza harmonizatzen saiatzea da.

Lehenik eta behin, erabiltzaile gazteen interesak harmonizatu behar dira, gazteen lonja horiek dituzten baldintzak hobetzeko asmoz, gazteei erabiltzaile eta maizter gisa dituzten eskubideak jakinarazi nahian. Horrez gain, mota horretako jarduera garatzean beren gain hartzen dituzten betebeharrak eta erantzukizunak jakin behar dituzte. Laburbilduz, gazteen lonjak gutxienezko bizigarritasun, higiene, erosotasun eta segurtasun baldintzak betetzen dituztela bermatu behar da.

Bigarrenez, erabilera hori inguruko auzo-koek eragozpenik eta zaratarik ez jasateko duten eskubidearekin bateratu behar da, jakina denez, zarata erabiltzaileen eta alboko erkidegoen arteko gatazken arrazoi nagusia baita. Halaber, lokal horien inguruan egon daitekeen zikinkeriak ere bizikidetzari eragiten dio. Hori dela eta, ordenantza honen helburua arazoak gutxitzea eta alde guztien eskubideak betetzen direla bermatzea izango da. Azken batean, lonjen erabilera auzo-koek eragozpenik ez izateko dituzten eskubideekin bateragarria izan behar da, lokalen erabilera eta auzo-koen eskubideak uztartuta, bidezko neurri zuzentzaileak hartuz.

Hirugarrenez, lokal horien jabeak eta/edo alokatzaileen esku- bideak eta betebeharrak uztartu behar dira, lonjek gazteen lonja gisa erabili ahal izateko bete behar dituzten baldintzak araututa. Laburbilduta, gazteen lonjak sortzen dituzten arazoak kopurua murriztu, eta bizikidetzak sustatu nahi da.

Hortaz, oinarritzko premisa horiek kontuan hartuta, udal orde- nantza hau prestatu da. Hona hemen haren testua, hitzez hitz:

Municipios

AMURRIO

1941

Aprobación definitiva de la ordenanza local sobre uso de lonjas para ocio recreativo juvenil.

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 8 de abril de 2014 aprobó definitivamente la Ordenanza local sobre uso de lonjas para ocio recreativo juvenil, que a continuación se transcribe íntegramente:

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos años el fenómeno de las lonjas juveniles ha tenido un crecimiento considerable tanto en Amurrio, como en muchos otros pueblos. La juventud ha desarrollado nuevos modos de organizar su tiempo de ocio y hoy en día existe en el municipio un importante número de lonjas en las que se reúnen a su vez, un gran número de personas jóvenes.

Se trata de espacios donde los y las jóvenes se relacionan con otros amigos y amigas, en definitiva espacios de encuentro y socialización, donde compartir intereses, gustos e inquietudes, siempre sin el control de las personas adultas.

De ese modo no es raro en el contexto actual que los y las jóvenes cuenten con un local privado de uso recreativo, en el que desarrollan su tiempo libre.

Sin embargo, esta situación ha dificultado, en ocasiones, la convivencia con los vecinos y vecinas del entorno donde está ubicado el local, derivados de molestias, ruidos y demás perjuicios que tal uso conlleva para el resto de la vecindad, a lo que habría que añadir los posibles riesgos que entraña un uso de estos espacios sin ningún tipo de control.

En este sentido, la presente Ordenanza, tendría como objetivo tratar de armonizar cada uno de los sectores implicados en el uso de dichos espacios, y así:

En primer lugar, armonizar los intereses de las personas jóvenes usuarias, con la finalidad de mejorar las condiciones en las que se encuentran este tipo de lonjas juveniles, buscando que las y los jóvenes conozcan sus derechos como personas usuarias e inquilinas. Por otro lado, también deben conocer las obligaciones y responsabilidades que asumen al desarrollar una actividad de este tipo. En definitiva, asegurar que las lonjas juveniles cumplan unas condiciones mínimas de habitabilidad, higiene, comodidad y seguridad.

En segundo lugar, coherente dicho uso con el derecho de los vecinos y vecinas del entorno a no sufrir molestias ni ruidos, ya que, como se sabe, el ruido es el origen principal de los conflictos entre las personas usuarias y las comunidades colindantes. Asimismo, la falta de limpieza que se puede producir en torno a estos locales también afecta a la convivencia, motivo por el cual, el objetivo de esta Ordenanza sería reducir los problemas y asegurar que los derechos de las diferentes partes se cumplan. En definitiva, hacer compatible el uso de las lonjas con los derechos de los vecinos y vecinas a no ser molestadas, conciliando el uso de los locales con los derechos del vecindario mediante la adopción de las correspondientes medidas correctoras.

En tercer lugar, compaginar los derechos y obligaciones de los y las propietarias y/o arrendadores o arrendadoras de estos locales, regulando las condiciones que deben tener las lonjas para poder ser utilizadas como locales juveniles. En definitiva, reducir el número de problemas que originan las lonjas juveniles e impulsar la convivencia.

Pues bien, sobre estas premisas básicas, se formula esta Ordenanza Municipal, cuyo texto es del siguiente tenor literal:

I. KAPITULUA. APLIKAZIO EREMUA

1. ARTIKULUA.- XEDEA.

Ordenantza honen xedea gazteentzako lokalak arautzeko bete-kizunak eta prozedura ezartzea eta Amurrio udalerriko gazteek erabiltzen dituzten aisia alternatiboko guneek gutxieneko segurtasun eta higie baldintzak dituztela eta erabiltzaileentzako zein auzoko-entzako mota guztietako eragozpenak eta arriskuak saihesten dituztela bermatu ahal izatea da.

Beraz, ordenantza honen helburua Amurrio udalerriko gazteen lonjen erabilera arautzea da.

2.- ARTIKULUA.- DEFINIZIOA.

Aurreko idatz-zatian adierazitakoaren ondorioetarako, gazteen edo gazteentzako lonjatzen edo lokaltzat joko dira etxebizitza eraikinen edo hiri eraikinen beheko solairuetan kokatu ohi diren eta gazteek aisialdirako eta topaketarako erabiltzen dituzten lokal pribatuak.

3. ARTIKULUA.- ORDENANTZA HONEN APLIKAZIO EREMUA.

Ordenantza hau Amurrioko bizitegitarako hiri lurzoruan zein industrialdean dauden lonjei aplikatuko zaie, baita gaur egun daudenei edo etorkizunean zabaldu edo erabiltzen direnei ere. Hori dela eta, lonja berriak zabaltzeko eta jada daudenak egokitzeko kontuan hartuko da.

4. ARTIKULUA.- ERABILERA.

a. Dantza, abesti edo musikari lotutako jarduera profesionalik ez duten etxebizitzaren beheko solairuetan dauden elkarte zentroak izate-agatik, lokal horietan ez da onartuko gazteen aisiarekin zuzeneko harremanik ez duen, gogaikarria den edo legez debekatuta dagoen jarduerarik. Era berean, debekatuta dago edozein produktu salerostea.

b. Arau honetatik kanpo daude beren-beregi ostalaritza jarduerak, adibidez, zirku, barraka, txosna eta sukaldaritza txokoetako taberna, kafetegi edo jatetxe zerbitzuak, eta 165/1999 Dekretuko II. eranskinari lotutako jarduera guztiak.

c. Debekatuta egongo dira auzokoentzat gogaikarriak diren edo eraikinaren segurtasuna arriskuan jartzen duten jarduerak, baita sukaldeak, labeak, frijigailuak, erregailuak, plantxak edo antzekoak eta funtzionatzeko keen arazketa eta erauzketa behar dituen beste edozein etxetresna elektriko instalatzea ere.

d. Debekatuta dago mota guztietako erregaiak bildu eta kontsumitzea, berogailuak erabiltzeko direnak izan ezik.

e. Erkidegoetan arazoak ez metatzeko, gehienez gazteen lonja bakarra egongo da atariko.

5. ARTIKULUA.- BIZITEGITARAKOAK EZ DIREN GUNEETAN KOKATZEKO BERRIAZKO BALDINTZAK.

Ordenantzaren xede diren eta bizitegitarakoak ez diren guneetan kokatzen diren lokalen erregimenak plangintzan eta, hori ez badago, ordenantza honetan ezarritakoari helduko dio, pertsonai edo ondasunei eragozpenak edo arriskuak sor diezazkieketen eta ingurumenari kalteak eragin diezazkieketen neurrian.

6. ARTIKULUA.- ASEGURUA.

Erabiltzaileek edo horien lege ordezkariak 100.000 euroko gutxieneko estaldura duen erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu beharko dute. Aseguru horrek erabiltzaileak eta haien ondasunak babestuko ditu lokalean gertatzen den edozein ekintza kaltegarriaren aurrean, baita hirugarren pertsonai eta/edo ondasunei eragindakoen aurrean ere. Adingabeak badira, haien tutoreek kontratatu beharko dute.

7. ARTIKULUA.- KONTRATUA.

Lokal guztiek alokairuko edo erabilera lagapeneko kontratua izan behar dute, jabearen edo horretarako ahaldundutako pertsonaren eta erabiltzaileen artean sinatutakoa. Adingabeak badira, haien arduradunek sinatuko dute.

II. KAPITULUA. EKIPAMENDUA ETA HIGIENE ETA OSASUN BETEKIZUNAK

8. ARTIKULUA.- APLIKAGARRITASUN OROKORRA.

Kapitulu honetan adierazitako neurri zuzentzaileak eta bete-kizunak ordenantza honek ukitutako lokal guztiei aplikatu beharreko

CAPÍTULO I. ÁMBITO DE APLICACIÓN

ARTÍCULO 1.- OBJETO.

La presente Ordenanza tiene por objeto establecer los requisitos y procedimiento para regulación de los locales para jóvenes, y poder garantizar que los espacios de ocio alternativo utilizados por los y las jóvenes del municipio de Amurrio reúnan las condiciones mínimas de seguridad e higiene y eviten todo tipo de molestias y riesgos para los propios usuarios y usuarias de los mismos, así como para el vecindario.

El fin de esta Ordenanza es, por tanto, regular el uso de las lonjas juveniles del municipio de Amurrio.

ARTÍCULO 2.- DEFINICIÓN.

A los efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entenderán por lonjas juveniles o locales para jóvenes, aquellos locales privados ubicados generalmente en las plantas bajas de edificios de vivienda o urbanos que la juventud utiliza como lugar de ocio y de encuentro.

ARTÍCULO 3.- ÁMBITO DE APLICACIÓN DE ESTA ORDENANZA.

Esta Ordenanza es aplicable tanto a las lonjas que se encuentran en el suelo urbano residencial de Amurrio como a las que están en la zona industrial. A las que existen actualmente como a las que se abran o se usen en el futuro, por lo que se tendrá en cuenta tanto para las nuevas aperturas como para la adecuación de las existentes.

ARTÍCULO 4.- USO.

a. En estos locales, por ser centros asociativos ubicados en planta baja de vivienda en los que no se realiza actividad profesional de baile, canto o música, no tendrán cabida, además, actividades que no tenga relación directa con el ocio juvenil, que sean molestas o estén prohibidas legalmente. Está igualmente prohibida la compraventa de cualquier producto.

b. Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las actividades hosteleras, tales como servicios de bar, café o restaurante en circos, barracas, choznas, txokos gastronómicos y todas aquellas actividades relacionadas en el anexo II del Decreto 165/1999.

c. Estarán prohibidas las actividades molestas para el vecindario o que pongan en riesgo la seguridad del edificio, así como la instalación de cocina, hornos, freidoras, asador, planchas o similares y cualquier otro electrodoméstico que necesite para su funcionamiento depuración y extracción de humos.

d. Se prohíbe el almacenamiento y consumo de toda clase de combustibles, excepto el destinado al uso de calefactores.

e. Para evitar acumular problemas en las comunidades no se abrirá más de una lonja juvenil por portal.

ARTÍCULO 5.- CONDICIONES ESPECÍFICAS DE EMPLAZAMIENTO EN ZONAS NO RESIDENCIALES.

El régimen de los locales objeto de la Ordenanza en zonas no residenciales, se sujetará a lo previsto en el planeamiento y, en su defecto, en la presente Ordenanza, en la medida que fueran susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o bienes, así como originar daños al medio ambiente.

ARTÍCULO 6.- SEGURO.

Las personas usuarias o sus representantes legales, deberán contratar un seguro de responsabilidad civil con una cobertura mínima de 100.000 euros que proteja a las personas usuarias y sus pertenencias ante cualquier hecho dañoso que ocurra en el local, así como los causados a terceras personas y/o bienes. En caso de menores de edad, serán sus tutores quienes lo contraten.

ARTÍCULO 7.- CONTRATO.

Todo local debe tener un contrato de alquiler o de cesión de uso firmado entre la propiedad o persona facultada al efecto, y las personas usuarias. En caso de menores lo firmarán sus responsables.

CAPÍTULO II. EQUIPAMIENTO Y REQUISITOS HIGIÉNICO -SANITARIOS

ARTÍCULO 8.- APLICABILIDAD GENERAL.

Las medidas correctoras y requisitos contenidos en este Capítulo tienen el carácter de reglas generales de aplicación a todos los locales

arau orokorrak dira. Dena den, Udalari behar bezala arrazoituta eskatzen zaionean, horiek betetzetik salbuesteko aukera dago, Udalak modu justifikatua irtenbide egokiena proposatuko duela.

9. ARTIKULUA.- GUTXIENEN SEGURTASUN ETA HIGIENE BALDINTZAK.

9.1 Lokalak gutxienez izan behar dituen azpiegiturak:

a. Argia: Nahitaezkoa da erabiltzeko egoera onean dagoen eta instalazio ofizialaren ziurtagiria edo aldizkaria duen instalazio elektriko egotea. Horretarako, nahitaezkoa da argiketari-instalatzailer baimenduaren ziurtagiri eguneratua izatea. Debeztatuta egongo da elektrikoak ez diren beste argiztapen bide batzuk erabiltzea.

b. Txorrotako ura: Nahitaezkoa da txorrotako uraren instalazio egotea (gutxienez, kontagailua duen ur-hartune bat), higie eta kontsumo lanak bermatzeko.

c. Komuna: Lokalak komun bat izan behar du, erabiltzeko egoera onean dauden konketa eta komunontzia, gutxienez, dituen.

d. Su-itxalgailua: Lokalek Legeak ezarritako su-itxalgailuak izan beharko dituzte, eta, gutxienez, 6 kiloko hautsezko ABC motako su-itxalgailu homologatua eta kaxa elektrikoaren ondoko CO2ko beste bat. Eskura egon beharko dira, eta mantentze lanetako kontratua indarrean izan behar dute.

e. Larrialdietako argiak: Irteeranzko seinaleztapena, irteera bera eta larrialdietako gailuak behar bezala jarrita egongo dira, Eraikuntzaren Kode Teknikoan suteen prebentzioari buruz adierazten diren oharrei jarraituta. Lokalaren tamaina kontuan hartuko da. Gela guztietan larrialdietako argi bat egongo da.

f. Edukiera: Lokaleko edukiera ezarri beharko da, Eraikuntzaren Kode Teknikoan suteen prebentzioari buruz adierazten diren oharrik kontuan hartuta. Gutxi gorabeherako kalkulua honako hau izango da: pertsona 1 bi metro karratuko, beheko solairuko erabilera publikoko gunetan. Edukiera hori ageriko toki batean jarri beharko da lokalaren barnean.

Arduradunen betebehara izango da lokalak uneoro barruan dauden pertsonen kopuruaren gutxi gorabeherako kontrolari eustea.

g. Ateak: Sartzeko eta irteteko ateak 90 cm-ko zabalera izango du, gutxienez. Gainerako ateak 80 cm-koa izango dute, Irigarritasunari buruzko 68/2000 Dekretuaren arabera. Sartzeko ateak funtzionamendu isila bermatu beharko dute.

h. Sarrera: Lokalek sarrera egokitu izan beharko dute, segurtasun eta irigarritasun neurriak bermatzeko. Lokal horiek kalerako zuzeneko sarbidea izan behar dute, eta ezin dute sarbiderik izan ataririk.

i. Lehen sorospenetarako botika-kutxa: Derrigorrezkoa izango da lehen sorospenetarako botika-kutxa izatea.

j. Berokuntza: Berokuntza sistemak honelakoak izan daitezke: Elektrikoak. Kasu horretan, entxufak lokalaren gainerako geletatik bereizitako diferentziala izango du.

Gasaren bidezkoa. Kasu horretan, lonjak eskatutako aireztapen sistemak (saretoak) izan beharko ditu.

9.2 Udalak instalazioak ikuskatu ahalko ditu, ezarritako betekizunak betetzen dituztela bermatzeko eta, hala denean, neurri zuzentzaileak aplikatzeko.

10. ARTIKULUA.- ZARATAK ERAGINDAKO ERAGOZPENAK SAIHESTEKO NEURRIAK.

Lonja bat etxebizitza edo eraikin bateko beheko solairuan badago, honako irizpide hauek hartu beharko dira kontuan, zaraten kontrolari dagokionez:

a. Irratiak, telebistak, hari musikala eta musika-ekipoak erabili ahalko dira, potentzia handikoak izan ezik. Horiek ezin dute soinu mailako 75dB (A) gainditu lokalaren edozein tokitan, eta ardura berezia jarriko da 23:00etatik 7:00etara bitartean.

b. Alboko etxebizitzetan zarata immisioari buruz onartutako maila dagokienez, urriaren 16ko 213/2012 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoko hots kutsaduraren, edo hori ordeztzen duen araudian

afektados por esta Ordenanza. No obstante, se podrá eximir del estricto cumplimiento de las mismas cuando se solicite de forma suficientemente razonada al Ayuntamiento, el cual propondrá justificadamente la solución más adecuada.

ARTÍCULO 9.- CONDICIONES MÍNIMAS DE SEGURIDAD E HIGIENE.

9.1 Infraestructuras que el local debe cumplir mínimamente:

a. Luz: Es imprescindible que exista una instalación eléctrica en condiciones adecuadas para su uso y que cuente con el certificado o boletín de instalación oficial. Para ello es imprescindible contar con certificado actualizado de electricista instalador autorizado. Estará prohibido el uso de otras vías de iluminación distintas de las eléctricas.

b. Agua corriente: Es imprescindible que exista instalación de agua corriente, al menos una toma de agua con contador para garantizar las labores de higiene y consumo.

c. Baño o cuarto de aseo: El local deberá disponer de un cuarto de aseo dotado como mínimo de lavabo e inodoro en condiciones adecuadas de uso.

d. Extintor: Los locales deberán disponer de los extintores de incendios que marca la Ley contando, como mínimo, con un extintor de incendios homologado tipo ABC de polvo de 6 kilos y otro de CO2 junto al cuadro eléctrico. Deberán estar a mano y con contrato de mantenimiento en vigor.

e. Luces de emergencia: La señalización hacia la salida, dónde se encuentra ésta, así como los dispositivos de emergencia estarán adecuadamente colocados siguiendo las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. Se tendrá en cuenta el tamaño del local. Habrá una luz de emergencia en todos los habitáculos.

f. Aforo: Deberá fijarse el aforo del local teniendo en cuenta las indicaciones que sobre prevención de incendios aparecen en el Código Técnico de Edificación. El cálculo aproximado será de 1 persona por dos metros cuadrados en zona de uso público en planta baja. Dicho aforo máximo deberá exponerse dentro del local en un lugar visible.

Será obligación de los responsables que el local tenga en todo momento un control aproximado del número de personas que haya en el interior del local.

g. Puertas: La puerta de entrada y salida tendrá 90 cm. de ancho como mínimo. El resto de las puertas tendrán 80 cm de acuerdo con el Decreto 68/2000 sobre accesibilidad. Las puertas de acceso deberán garantizar un funcionamiento silencioso.

h. Entrada: los locales deben de tener entrada adaptada para asegurar las medidas de seguridad y accesibilidad. Estos locales deben tener acceso directo a la calle y no podrán tener acceso por el portal.

i. Botiquín de primeros auxilios: Será obligatorio contar con un botiquín de primeros auxilios.

j. Calefacción: Los sistemas de calefacción podrán ser: Eléctricos, en cuyo caso, el enchufe tendrá diferencial independiente del resto del local.

De gas: en cuyo caso, la lonja deberá contar con los sistemas de ventilación exigidos (rejillas).

9.2 El Ayuntamiento podrá inspeccionar las instalaciones para asegurar que cumplen los requisitos establecidos y en caso necesario aplicar medidas correctoras.

ARTÍCULO 10.- MEDIDAS PARA EVITAR LAS MOLESTIAS OCASIONADAS POR EL RUIDO.

En el caso de que una lonja esté situada en la planta baja de una vivienda o edificación, ésta deberá tener en cuenta los siguientes criterios en cuanto a control de ruidos se refiere:

a. Se podrán utilizar radios, televisiones, hilo musical y equipos de música, excepto los de gran potencia. Estos no deberán sobrepasar los 75dB (A) de nivel sonoro en cualquier parte del local, extremando la precaución entre las 23:00 y las 7:00 horas.

b. En cuanto a los niveles permitidos de inmisión de ruidos en las viviendas colindantes, se aplicarán los establecidos en el Decreto 213/2012 de 16 de octubre de Contaminación Acústica de la

eta, hori baldin badago, hori garatzeko udal araudian ezarritako aplikatuko dira. Logelearako ezarritako hots kalitatearen helburuak honako hauek dira: 40 dB(A) goizerako eta arratsalderako (7:00etatik 23:00etara bitartean) eta 30 dB(A) gauerako (23:00etatik 7:00etara bitartean); etxebizitzaren gainerako gelearako 5 dB(A) handiagoak dira.

c. Gainera, alboko etxebizitzetan ez da onartuko 45 dB(A)tik gorako mailarik logeletan goizean eta arratsaldean, ezta 35 dB(A)tik gorakoak ere gauean, gainerako gelearako onartutako gehieneko mailak 5 dB(A) handiagoak direla.

d. Lokalaren sarreran gazteak pilatzea eragotziko da, 23:00etatik aurrera.

e. Debekatuta dago oihuek, abestiek, txistuek eta abarrek eragindako zaratak egitea 23:00etatik aurrera, baita ateak eta persianak ireki eta itxteagatik, altzariak mugitzeagatik eta antzekoengatik zarata egitea ere.

11. ARTIKULUA.- ORDUTEGIA.

Bizikidetzaren bermatzeari dagokionez, isiltasuna bermatu behar da. Hori dela eta, ezarritako ordutegitik aurrera lokala isilpean egon beharko da, eta, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua aplikatuta:

Araubide orokorra: 00:30etik aurrera.

Gehikuntza:

a) Ordubete ostiral, larunbat eta jai bezperetan.

b) Ordu erdi ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean.

c) Bi ordu, abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuko 12. artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe, zaindariaren jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera bitartean, Inauterietako ostegunetik asteartera bitartean eta Gabonetan, abenduaren 21etik urtarrilaren 6ra bitartean. Ordutegien gehikuntza orokorrak metagarriak izango dira.

12. ARTIKULUA.- HIGIENE NEURRIAK.

a. Lokal bakoitzak gutxienezko higiene neurri batzuk izan behar ditu. Horretarako, lokala egokituta egongo da garbiketa errazteko. Beraz, lurzorua, hormak eta sabaia erraz garbitzen diren elementu lauekin estali behar dira.

b. Lokalaren barnean ezin izango da zarama pilatu poltsetatik edo edukiontzietatik kanpo.

c. Lokalaren kanpoaldea eta ingurua higiene egoera onean egon beharko dira, lokalaren jardueraren batetik ondorioztatutako objektuak edo zaramak uztea eragotzita.

d. Amaieran, zarama kanpoko udal edukiontzietan utzi behar da.

e. Beirak edo objektu zorrotzak berehala garbitu behar dira.

f. Lokalaren aireztapena bermatu behar da, kiratsak saihesteko asmoz. Beharrezkoa bada, lokala aldian-aldian desinfektatuko da.

g. Animaliak ez dira inola ere bakarrik egongo lokalean. Animaliek ez dute gaua lonjan emango inola ere.

13. ARTIKULUA.- ALKOHOLA ETA BESTELAKO DROGAK HARTZEARI BURUZKO NEURRIAK.

Alkohola hartzeari dagokionez, ordenantza honen xede den edozein lokaletan beteko dira adingabeek alkohola edatea debekatzen duten udal ordenantza eta gainerako arauak. Gainerako drogei dagokienez, indarreko araudiak ezarritakoari jarraituko zaio.

Lonjaren erabiltzaileak diren gazteek drogak hartzearen arloan indarrean dagoen araudi osoa betetzeko ardura izango dute.

Alkoholaren edo drogaren baten eraginpean dagoen pertsona bat ez da inoiz bakarrik utziko lonjan, behar izanez gero laguntza ez ematek ondoriozta daitezkeen arriskuak direla eta.

III. KAPITULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

14. ARTIKULUA.- LOKAL BERRIAK ZABALTZEKO ESKAERA.

1.- Lokal berriak zabaltzeko eskaera Alkatetza-udalburutzari zuzendutako instantziaren bidez egingo da. Honako datu hauek adierazi beharko dira:

Comunidad Autónoma del País Vasco o normativa que la sustituya, y en su caso, si la hubiera, la normativa municipal de desarrollo. Los objetivos de calidad acústica establecidos para los dormitorios son 40 dB(A) para el periodo día y tarde (de 7:00 a 23:00) y 30 dB(A) para el periodo nocturno (de 23:00 a 7:00), siendo 5 dB(A) superiores para el resto de estancias de las viviendas.

c. Además, no se permitirán niveles máximos en las viviendas colindantes superiores a 45 dB(A) en dormitorios durante el día y la tarde, ni a 35 dB(A) durante la noche, siendo 5 dB(A) superiores los niveles máximos permitidos para el resto de estancias.

d. Se deberá evitar la concentración de jóvenes en la entrada del local a partir de las 23:00 horas.

e. Se prohíbe producir ruidos provocados por gritos, cánticos, silbidos, etc., a partir de las 23:00 horas, así como la emisión de ruidos por apertura y cierre de puertas y persianas, movimientos de mobiliario, y similares.

ARTÍCULO 11.- HORARIO.

En lo relativo a garantizar la convivencia se debe de asegurar el silencio, de forma tal que a partir del horario establecido el local deberá permanecer en silencio y así, en aplicación del decreto 296/1997, de 16 de diciembre:

Régimen general: A partir de las 00:30h.

Incremento:

a) Una hora los viernes, sábados y vísperas de festivos.

b) Media hora desde el 1 de junio al 30 de septiembre.

c) Dos horas, sin perjuicio de lo establecido en el art. 12 del Decreto 296/1997, de 16 de diciembre, en fiestas patronales, de jueves a lunes de Semana Santa, de jueves a martes de Carnavales y desde el 21 de diciembre al 6 de enero en Navidades. Las ampliaciones generales de horarios serán acumulables.

ARTÍCULO 12.- MEDIDAS DE HIGIENE.

a. Cada local debe mantener unas medidas de higiene mínimas. A tales efectos, el local deberá estar adecuado para facilitar la limpieza, por lo que el suelo, paredes y techos deberán revestirse con elementos lisos y de fácil limpieza.

b. No se puede acumular basura dentro del local fuera de bolsas o contenedores.

c. El exterior del local y sus inmediaciones tendrán que estar en condiciones higiénicas adecuadas, debiendo evitarse el abandono de objetos o basuras derivadas de alguna actividad del local.

d. La basura debe depositarse finalmente en los contenedores exteriores municipales.

e. Se deberá limpiar de manera inmediata la existencia de vidrios u objetos cortantes.

f. Debe garantizarse la ventilación del local, con el fin de evitar los malos olores, procediendo, si fuera necesario, a la desinfección del local periódicamente.

g. En ningún caso deberán permanecer animales solos en el local. En ningún caso los animales pasarán la noche en la lonja.

ARTÍCULO 13.- MEDIDAS RELATIVAS AL CONSUMO DE ALCOHOL Y OTRAS DROGAS.

Con relación al consumo de alcohol, en cualquiera de los locales objeto de la presente Ordenanza, se cumplirá la Ordenanza municipal y demás normativa que prohíben el consumo de alcohol por parte de los menores de edad. Con respecto al resto de drogas se atenderá a lo establecido por la normativa vigente.

Las personas jóvenes usuarias de la lonja serán responsables del cumplimiento de toda la normativa vigente en materia de consumos de drogas.

En ningún momento se debe dejar sola en la lonja a una persona que se encuentre bajo los efectos del alcohol o algún tipo de drogas, por los riesgos que pudiesen derivarse de no ser socorrida si así lo precisase.

CAPÍTULO III. RÉGIMEN JURÍDICO

ARTÍCULO 14.- SOLICITUD DE APERTURA DE NUEVOS LOCALES.

1.-La solicitud de apertura de nuevos locales se formulará mediante instancia, dirigida a la Alcaldía-Presidencia, haciendo constar los siguientes datos:

Eskatzailearen izen eta abizenak, nortasun agiri nazionalaren edo identifikazio fiskaleko zedularen zenbakia, helbidea eta telefono zenbakia.

Lonja edo lokala alokatu edo erabiltzen duen taldeko kideen izen eta abizenen zerrenda eta NANaren fotokopiak. Halaber, Udalaren aurrean solaskide edo lonjaren arduradun jardungo duten kideak adieraziko dira, horiek sinatutako onarpen eta baimen idazkiarekin batera.

Adingabeak badira, gurasoen edo tutoreen onarpenaren eta/edo baimenaren egiaztagiria.

Lokalaren jabearen edo lagatzailearen datuak: izena, abizenak eta telefono zenbakia.

2.- Eskaerari, gainera, agiri hauek erantsi behar zaizkio:

-Lokala erabiltzeko eskumena ematen duen alokairuko idatzizko kontratuaren edo lagapen agiriaren kopia.

-Eskaeraren xede den lokalaren kokapen plano eta deskribapena, azalera osoa eta hori osatzen duten geletako azalera partziala eta haren banaketa (komunak, gelak...) adierazita eta lokalaren azpiegiturak (hots iturriak eta abar) instalatuta dauden tokiak zehaztuta. Horrez gain, neurri zuzentzaileak aipatuko dira, azken horien egoera egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera.

-Erantzukizun zibileko aseguruaren polizaren kopia. Lokala lehenengoz erabiltzeko eskaera bada, erantzukizun zibileko aseguruaren aurrekontua aurkeztu beharko da. Lonja inskribatu eta gero, erantzukizun zibileko aseguruaren kopia eta horren ordainagiriarena aurkeztu beharko dira astebeteko epean.

15. ARTIKULUA.- LOKAL BERRIAK ZABALTZEKO EDO JADA ERABILTZEN DIRENEN EGOERA ARAUTZEKO PROZEDURA.

a) Lokal bat zabaldu baino lehen edo baimenik gabe jada erabiltzen ari diren lokalen egoera arautzeko, interesdunek aurreko artikuluan aipatutako dokumentazioa aurkeztu behar dute Udalean.

b) Aurkeztutako dokumentazioa eskatzen dena ez bada, hamar eguneko epea emango da, hori zuzentzeko. Eskatutako dokumentazioa adierazitako epean aurkeztu ezean, eskaeran atzera egin dela ulertu, eta hori artxibatuko da.

c) Dokumentazioak ordenantza honetan eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatu ondoren, Udalak ukitutako lokalaren ondoko auzokoei jakinarazteko izapidea beteko du, eta hamar (10) eguneko epea emango die, alegazioak aurkezteko.

d) Halaber, aurkeztutako dokumentazioa ikusita eta behin betiko ebazpena eman baino lehen, udaleko zerbitzu teknikoek lokalak bete beharreko neurri zuzentzaileak ezartzeko txostena egingo dute.

e) Behin betiko ebazpena eman baino lehen, interesdunari hiru hila-beteko epea emango zaio, lokalari buruz eskatutako neurri zuzentzaileak har ditzan.

f) Eskatzaileak ezarritako neurriak bete dituela jakinarazi eta gero, udaleko zerbitzu teknikoek ikuskapen bisita egin, eta aldeko egiaztapen akta egingo dute, lokalak ezarritako neurri zuzentzaileak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Bestela, interesdunari antzemandako akatsak jakinaraziko zaizkio, horiek zuzentzeko epe zehatz bat emanda.

g) Aurkeztutako alegazioak aztertu eta, hala denean, aldeko egiaztapen akta egin eta gero, Udalak eskaera onartzen duen edo ukatzen duen ebazpena emango du.

h) Eskaera Udalean formalki aurkeztu zenetik sei hilabeteko aldiaren organo erabakitzaileak beren-beregiko ebazpenik eman ez bada, eskaera ukatu dela ulertuko da.

16. ARTIKULUA.- LONJAREN ARDURADUNEN ETA ERABIL-TZAILEEN ALDAKETA EDO ZIRKUNSTANTZIEN ALDAKETA.

Udalak uneoro lonjaren arduraduna den pertsonaren nortasunari buruzko informazio eguneratua izan beharko du. Arduradunaren norta-

Nombre y apellidos de la persona solicitante, número de su Documento Nacional de Identidad o Cédula de Identificación Fiscal, domicilio y teléfono.

Relación de nombre y apellidos y fotocopia del DNI de los miembros del grupo que alquila o usará la lonja o local señalando asimismo a los miembros que actuarán y figurarán como interlocutores o responsables de la lonja frente al Ayuntamiento, acompañado del oportuno documento de aceptación y autorización suscrito por estos últimos.

En caso de ser menores de edad, documentación acreditativa de la aprobación y/o autorización de los padres o tutores.

Datos de la persona propietaria o cedente del local: nombre, apellidos y teléfono.

2.-La solicitud deberá venir acompañada además de los siguientes documentos:

-Copia del contrato de alquiler del local o documento de cesión por escrito que faculte el uso.

-Un plano de emplazamiento y descripción del local objeto de la solicitud incluyendo la superficie total y parcial de las distintas áreas que lo conformen, y su distribución, (aseos, estancia,...), con detalle y descripción de los lugares donde están instaladas las infraestructuras del local, (fuentes sonoras, etc.) y sus correspondientes medidas correctoras, acompañada de la documentación que verifique el estado óptimo de las mismas.

-Copia de la póliza del seguro de responsabilidad civil. En caso de solicitud de primer uso del local, presupuesto del seguro de responsabilidad civil. Una vez inscrita la lonja, deberá presentarse la copia del seguro de responsabilidad civil en el plazo de una semana y del recibo de abono.

ARTÍCULO 15.- PROCEDIMIENTO PARA LA APERTURA DE NUEVOS LOCALES O PARA REGULAR LA SITUACIÓN DE LOS QUE YA SE ENCUENTRAN EN USO.

